

*lankidetzan hizkuntzak biziberritzen*

# AURKIBIDEA

|                                                                                 |           |
|---------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1.- Garabideren aurkezpena .....</b>                                         | <b>4</b>  |
| <b>2.- Aitzinsolasa.....</b>                                                    | <b>7</b>  |
| <b>3.- Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala.....</b>               | <b>9</b>  |
| 3.1.-Harreman Instituzionaletarako arduradun berria: Nerea Uriarte Goitia.....  | 10        |
| 3.2.- GARABIDEko lantalde teknikoaren aurkezpena .....                          | 11        |
| 3.3.- Betaurreko moreekin barne begirada .....                                  | 12        |
| <b>4- Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza.....</b>         | <b>15</b> |
| 4.1.- HIBIL: Herri Indigenen Hizkuntzen Biziberritze Estrategiak Indartzeko     |           |
| 1. Lankide Sarea.....                                                           | 16        |
| 4.2.- Yucatanen ereileen aroan .....                                            | 18        |
| 4.3.- Bihotza eta sabela elkarlanean Tosepanen .....                            | 19        |
| 4.4.- Nasa umeak nasa yuwez.....                                                | 20        |
| 4.5.- Kichwak elkarlanean .....                                                 | 21        |
| 4.6.- Bolivia aniztasunaren arrago .....                                        | 22        |
| 4.7.- Bi ekimen mapuzugunaren biziberritze prozesua hauspotzeko.....            | 23        |
| 4.8.- Zubi eta sare amazigekin.....                                             | 24        |
| <b>5.- Hirugarren lerro estrategikoa: aktibazio soziala Euskal Herrian.....</b> | <b>26</b> |
| 5.1- “Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen” erakusketa .....                  | 27        |
| 5.2.- Euskal lankidetzan hizkuntza gutxituekin lanean.....                      | 28        |
| 5.3.- Hizkuntza aniztasuna lantzen Errenteriako ikastetxeetan .....             | 29        |
| <b>6.- 2021eko balantze ekonomikoa.....</b>                                     | <b>30</b> |
| 6.1.- Egitura.....                                                              | 30        |
| 6.2.- Balantze ekonomikoa .....                                                 | 31        |
| <b>7- Erakunde babesleak eta erakunde laguntzaileak.....</b>                    | <b>32</b> |
| 7.1.—Erakunde babesleak.....                                                    | 32        |
| 7.2.- Erakunde laguntzaileak.....                                               | 34        |

# Garabide: lankidetzan hizkuntzak biziberritzen

Garabide **irabazi asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakundea** da eta 2005ean sortu zen euskal lankidetzaren berria egiteko: hizkuntza lankidetzaren. Hau da, kooperazioan lan egiten dugu, baina lan(kidetzaren) hori hizkuntzatik abiatzea da proposatzen dugun berrikuntza eta, gaur egun arte, horretan ari den GKE bakarra gara.

## Zer?

**Hizkuntza lankidetzaren, euskal lankidetzaren bereizgarria**

Euskal Herriak munduarekin partekatze duen esperientzia edo jardunbide bereizgarrienetako bat euskararen biziberritze esperientzia da eta, aldi berean, **munduko beste biziberritze esperientzietatik asko dugu ikasteko**. Horregatik, Garabiden gizarte eraldaketaren ardatza hizkuntzen biziberritzean jartzen dugu. Izan ere, **komunitate edo gizarte baten garapenak ezin du integrala izan bere hizkuntza eta identitatea barnebiltzen ez baditu**. Garabideren egitekoak hiru lerro nagusitan sailkatzen ditugu:

- **Lehen lerro estrategikoa:** finkatze instituzionala
- **Bigarren lerro estrategikoa:** formazioa eta aholkularitza
- **Hirugarren lerro estrategikoa:** gizarte aktibazioa Euskal Herrian

## Zergatik?

**Mundua larrialdi linguistikoan dagoelako**

UNESCOn arabera munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen artean, gutxienez, %43 dago desagertzeko arriskuan. Gainera, Soziolinguistika Klusterrak ohartarazi moduan, **munduan gertatzen ari den hizkuntzen galera masiboa, proportzionalki, handiagoa da bioaniztasunaren galera baino**. Gaur egun, bi astetik behin uzten da hizkuntza bat hiztunik gabe. Hizkuntzen galera edo, hobe esanda, ordezkatzeko prozesuak (hizkuntza gutxituak hizkuntza hegemonikoekin ordezkatzeko baitira) ez dira naturalak eta horren kontzientzia sustatu nahi dugu. Gainera, hizkuntza ekologiaren alde **gizartea antolatu dadin sustatzen dugu gure praktikak eta politikak linguistikoki jasagarriak** izan daitezen.



**kurduak**



**amazighak**



**maputxeak**



**guaraniak**



**aimarak**



**nasak**



**kitxuak**



**kaqchikelak**



**k'icheak**



**yucatango maiak**



**nawatak**

## Norekin?

**Euskalgintzarekin eta munduko hizkuntza aktibistekin zubigintzan**

Gizarte eraldaketak, hizkuntza gutxituen biziberritzea kasu, arnas luzeko prozesuak dira eta bideragarriak izan daitezten **tokiko eragileek gidatu behar dituzte**.

Gaur egun, Garabide munduko hamaika komunitaterekin ari da hizkuntza lankidetzan eta Euskal Herrian ere 80tik gora dira Garabideren entitate laguntzaile eta babesleak.

## Nola?

**Esperientzia trukearen bidez**

Kooperazio era berri honek egiteko modu berriak dakartza, hizkuntza gutxituetako biziberritze esperientzien elkartrukean oinarritzen baita. Komunitate bakoitzaren **hizkuntza biziberritze esperientzia edo know how hori sakonean ezagutzeko formazioa eta aholkularitza** dira gako nagusiak. Hala ere, ez dago errezeta bakarrik hizkuntzak biziberritzeko, tokiko ezaugarrien arabera komunitate bakoitzak bere bidea egin behar baitu. Formazio eta aholkularitzek mahai gainean jartzen dute hizkuntza gutxituen auzia globala dela eta aukera eskaintzen dute **estrategia lokalak garatu dituzten munduko erreferente desberdinen esperientziak sistematizatu eta transmititzeko**. Azkenik, hizkuntza lankidetzak biziberritze lanetan ari diren eragileen sarea ehuntzen du eta horri esker ahaldundu (g)uneak eratzen dira, hau da, bestelako gutxiagotzek elkar lotzen ditu hegemonien deseraikuntzan laguntzeko.

## Non?

**Euskal Herrian eragin mundua aldatzeko**

Nazioarteko hizkuntza lankidetzak, begirada zabalean, **euskalgintzaren nazioarteko-tzea** eragiten badu ere, bere eginbeharra ez da urruneko lankidetzaren proiektuetara mugatzen, **Euskal Herrian gizarte aktibaziorako tresna garrantzitsua** baita. Hizkuntza lankidetzaren etengabe ari da euskararen biziberritze esperientzia jaso eta ezagutarazten, modu ulerterrazean dibulgazio eleaniztuna egiten (liburuxkak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hitzaldiak...), ez soilik nazioarteko eragileekin partekatze, baizik eta gurean **euskararen biziberritze esperientziari dagokion balioa eman eta esperientzia horren transmisioa errazteko**.

# SAREAN ERAGINKORRAGO

## Eraginkortasuna.

Kontatu didate euskararen erabilera bultzatzeko estrategia berritzaile bat abian dela: eremu berean diharduten erakunde batzuek euren arteko harremanetan euskara baliatzeko konpromisoa. Sarean asmo horri heltzea errazagoa omen da, taldeka baino. Jarduteko eredu hori, bereziki genero berdintasunerako sarean ari omen da arrakastatsu suertatzen, baina ez da alor bakarra.

## Biziraupena.

Garabidek ere sarean dihardu. Elkarte txikia eta baliabide gutxikoa izanik, hainbat hari-muturretatik tira egin behar du, ezinbestean. Horretarako elkartzen dira soldatapeko langileak zein boluntarioak; euskal erakundeak eta Hegokoak; elkarte sozialak eta herri-erakundeak... Sare horrek bermatzen du Garabideren biziraupena.

## Jauzia.

Badaude Euskal Herrian bertan, bestalde, Garabideren balio bertsuak partekatzen dituzten hainbat talde, elkarte eta dinamika: euskaingintzakoak, genero berdintasunekoak, ekologiaren aldekoak, eta abar. Bakoitzaren misioa jardun-arloaren arabera den arren, bisio eraldatzailea denok partekatzen dugu: bestelako mundu bat posiblea izatea..., eta horretarantz jauzi egin beharra.

## Erronka.

Garabidek misio eraldatzailearen baitan duen rola, hizkuntzen biziraupenean eta biziberritzean datza. Horretan eraginkorra are eraginkorragoa izango bada, erronka bati egin beharko dio aurre: egungo biziraupen-sarearen epeltasunetik, balio eta bisio bertsuak dituzten talde eta mugimenduen elkarlaneko sare batera jauzi egitea.



*Iñaki Martínez de Luna*  
Garabideko lehendakaria



1. lerro estrategikoa: FINKATZE INSTITUZIONALA

*Sendotzen*



# Harreman Instituzionaletarako arduradun berria: Nerea Uriarte Goitia

42 urteko arrasatearra irailean hasi zen gurekin lanean, Maialen Sobrino ordezkatzuz eta hark egindako lanari jarraipena emanez. Nerea psikologian graduatua da eta, gaur egun, zuzenbideko 3. maila egiten ari da.

Bere lan-ibilbidea lankidetzaz munduari erabat lotuta dago. UNICEFen hasi zen, besteak beste, Ekuadorren kolonbiar errefuxiatuekin lan humanitarioa egiten, Perun politika publikoen arduradun

gisa. Ondoren KCDn aritu zen 5 urtez teknikari lanetan kultura eta garapen lanetan eta, azken 6 urteak, UNRWA-Euskadin egin ditu, palestinar errefuxiatuen behar ugariei erantzuten.

Nerearen esanetan GARABIDEk erakarri du, "lankidetzaz munduan zerbait ezberdina delako", "...orain artean, alde ilunena bizi izan dut: atentzio humanitarioa, hilketei eta beren ondorioei erantzun beharra... orain eraikitzeko gogoia dut".

Dena ikasketa eta lana ez denez, afizioen inguruan, Nerea joalduna da, euskal dantzetan aritzen da eta ez omen du afizio berezirik, bidaiatzea ez bada.

Ongi etorri Garabideko lantaldetara Nerea, zereginik ez zaizu faltako!



# Hemen dituzu GARABIDEren lantalde teknikoko partaideak



Era askotakoak dira garabidetarrak, Garabide posible egiten duten pertsona zein entitate sozial eta publikoak. Horietako bat lantalde teknikoa da, egunez egun, era askotako dinamika koordinatzen dituen eta zeregin ugariei erantzuten dien talde profesionala.

Iazko memorian koordinatzaile berria aurkeztu genuen, aurten Harreman Instituzionaletarako arduradunaren berri ematen dizugu, eta horrekin batera, Garabideren lantalde teknikoa osatzen duten pertsona guztien berri eman nahi dizugu. Honakoak dira

ezkerretik eskuinera: Julen, Gatxi, Maiteder, Txema, Nerea, Maddi eta Eñaut. Ez dute aspertzeko beta handirik!



# BETAURREKO MOREEKKIN BARNE BEGIRADA

2019ko udazkenean Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egin ahal izateko diru laguntza esleitu zion Garabide Kultur Elkarteari. Diru laguntza horri esker, 2020an zehar betaurreko moreak jantzi eta erakundearen diagnostia egiteari ekin zitzaion, lan talde tekniko, kontseilu nagusiko zenbait kide, zuzendaritza batzorde eta prozesu honetarako eratutako genero taldearen parte hartze aktiboarekin. Hainbat urtetako eskariari erantzuna emateko

prozesuari hasiera eman zitzaion, Garabide Elkartearen genero plana osatzeko prozesuari alegia.


2020an eginiko lanketa hori oso garrantzitsua izan zen 2021eko jardunari aurre egiteko. 2021ean zehar, Emun aholkularitza zerbitzuaren laguntzaz, diagnosi fasean identifikatutako gabeziei irtenbide bat aurkitzeko plan baten diseinua gauzatu da. Hainbat izan dira kontuan hartutakoak, baina batez ere hurrengo hiru urteetan elkarrekin bere egunerokoan aplikatu ahal izango duen plan



erraz, maneia kor eta egingarria izatea lehenetsi da.

Estruktura, politika eta erakundearen kulturen filtro morea ezartzea izanik helburu nagusietako bat, Garabideren egunerokoa diren proiektuetan generoa nola txertatu ere landuko da plan honen bidez, eta 2021-2022 biurtekoan gauzatzen ari den HIBIL proiektua baliatuko da pilotaje moduan.

2022an hiru urte iraungo duen inplementazio garaia hasiko da, erakundearen beraren izaeran, proiektuen kudeaketan eta lantaldearen egunerokoan eragingo duen plana.





2. lerro estrategikoa: FORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

# Areagotzen





# Herri Indigenen Hizkuntzen Biziberritze Estrategiak

## Indartzeko 1. Lankidetzaren Sarea

Pasa den urtean, pandemia testuingurua zela eta, gure proiektuetako asko moldatu eta on-line formatura ekarri behar izan genituen. 2021ean, egoera zertxobait hobetu den arren, salbuespen egoeran jarraitu dugu. Hala ere, era mixtoan planteatu ahal izan dugu 2021 eta 2022an zehar garatuko den HIBIL proiektua. Herri Indigenen Hizkuntzen Biziberritze Estrategiak Indartzeko 1. Lankidetzaren Sarea deitu dioguna on-line burutu dute 21 partaidek, eta Euskal Herrian egonaldia egingo dute 2022ko martxoan.

Erdi eta Hegoamerika eta Ipar Afrikako 12 hizkuntza komunitatetako 21 hizkuntza aktibistek (17 emakume eta 4 gizon) hartu dute parte on-line formazioa eta Euskal Herriko egonaldia uztartzen dituen formazio proiektu hibrido honetan. 2021ean aurrera eramanean den prozesuaren lehen zatian, alderdi teorikoak

landu dituzte eta beraien komunitateetan garatzeko proiektu baten diseinuari ekin diote. 2022ko martxoan, berriz, Euskal Herrira bidaiatuko dute eta euskararen biziberritze esperientzian esanguratsuak izan diren erakunde edo ekimenak bertatik bertara ezagutzeaz gain, proiektuen diseinuak Euskal Herriko aditu edo erakunde desberdinen aholkularitzarekin borobilduko dituzte.

2020an lehen aldiz antolatu genuen on-line formazioaren esperientzia eta hobekuntza proposamenak baliatuz, 2021ean itxura berria eman diogu formazioaren euskarri den moodle plataformari HUHEZIKo irakasle adituen aholkularitza teknopedagogikoari esker, eta metodologia irisgarriago eta eraginkorragoa ere aplikatu ahal izan dugu. Horretaz gain, gure gainontzeko proiektu guztietan bezala, genero



ikuspegia zeharkako ikuspegi gisa txertatzeko pausoak ere eman ditugu. Emakumeen parte-hartze zabala bultzatzea oinarri-oinarrizko baldintza dela kontuan harturik (partaideen erdia baino gehiago emakumeak izateraino), harago joan nahi izan da proiektu honetan. Bai Hegoan eta baita Euskal Herrian ere, genero arduradun bana izendatu da prozesu guztian (edukietan, metodologietan...) genero ikuspegia kontuan hartzen dela bermatzeko. Gainera, partaideen ordezkari gisa ere Hegoko emakume bat izendatu da, emakumezkoak erreferentziazko postuetan egotea bultzatuz ahaldundutzean aurrerapausoak emateko. Ez hori bakarrik, formazioarekin paraleloan, hizkuntza biziberritzearen eta emakumeen ahaldundutzearen prozesuen arteko lotura aztertze gogoeta saioak burutu dituzte partaideek beraien herrialdeetan, eta prozesuaren amaieran hausnarketa horiek ezagutaraziko dira.

# YUCATANEN EREILEEN AROAN

YUCATAN



**YUUYUM** AC erakundea dugu bitartekari eta solaskide Yucatanango penintsulan. Haiekin ari gara hiru estatuetan, Campechen, Quintana Roon eta Yucatanen maiaren lurralde osoan hedatuko den eragile sarea osatzeko eta errotzeko lanean.

2021ak, bere zailean, bi aurrerapen nabarmen erakusten ditu. Lehena Wayé mugimenduaren hedapena genuke. Aktibazio sozialeko ekinbide horretan hizkuntza-aktibistak ereile gisa irudikatu ditugu eta arlokako eta udalerrietako ereileak izango dira. Horientzako prestakuntza eta aholkularitza finkatzear den Talde Motorrak hartuko du bere gain.

Lehen fase baten ereileak formatzea, biziberritze estrategiez ahalduntzea eta euren komunitateetako premia eta aukera soziolinguistikoen irakurketa kritikoa egiteko trebatzea aurreikusten da. Honen indargarri ereileen arteko komunikazio kanal zabala ere diseinatu da, ereileek informazioa truka dezaten

eta esperientziak parteka ditzaten.

Bigarren aitzinamendua aliatu berriekiko hurbilpenetik dator. Urtean zehar harremanak estutu dira alor desberdinetako agente sozialekin, maiaren biziberritzean izan genitzakeen elkarlana eta sinergiak aztertzeko. Eta mapa interesgarria osatzen ari da.

Bestalde, biziberritze-fronte berri bat ireki da Meridako udalean. Yucatanango hiririk handieneko Kultura Maiaren Institutua Maia Biziberritzeko Udal Plana lantzen hasita dago eta dagoeneko udal gobernuak adierazi du bere babes eta inplikazio osoa. Azpimarragarria da proiektu honetan Donostiako udala dugula bidaide eta Gipuzkoako hiriburuko biziberritze-esperientzia Meridakoaren zerbitzura jartzeko konpromisoa hartu dela.

Zaindu beharreko beste adar bat, beraz, maiaren biziberritze arbolan.

# BIHOTZA ETA SABELA ELKARLANEAN

TOSEPAN



**MEXIKOKO** Puebla estatuko Cuetzalan herrian kokatzen den TOSEPAN talde kooperatiboarekin lanean jarraitu dugu. 2021. urtean garatu dugun lanarekin pozik gaude eta hiru puntu azpimarratu nahi ditugu:

- 1.- Talde kooperatiboa dugu, baina Tosepan ez da hemen ulertzen dugun talde kooperatibo bat. Tosepanek 8 kooperatiba (osasuna, eraikuntza, aurrezki kutxa, eskola...) izateaz gain, 434 kooperatiba lokal eta 40.000 bazkide baino gehiago ditu. Beraz, Pueblako mendizerran presentzia eta eragin handikoa da.
- 2.- Duela 4 urte hasitako nawat hizkuntza biziberritzeko egitasmoari jarraipena eman diogu. Azken 2 urteak ez dira errazak izan: pandemia,

arduradun nagusiaren bapateko heriotza,...aurten gaiari indarrez heldu diogu eta zehaztua dugu jadanik 2022ko gestio plana.

- 3.- SEI plana (hau da, plan sozio-ekonomiko-identitarioa) martxan jarri dugu Garabide eta Mundukide entitateek elkarlanean. Guk dakigula lehen aldiz lantzen dira proiektu bakar batean 2 osagai horiek, sozio-ekonomikoa eta identitario-lingüistikoa. Uste dugu euskaldunok badugula esperientzia metatua eta boluntario gisa aritu daitezkeen oso pertsona egokiak bi eremu horietan han eta hemen gure ekarpena egiteko. 2021eko irailetik-abendura han izan dira gure ekonomistak eta gure hizkuntza aktibistak eta egindako lanaren balorazioa oso baikorra da. 2022an SEI plana indartzea dugu helburu.



# NASA UMEAK NASA YUWEZ

CAUCA



**KOLONBIAKO** Cauca Departamentuko Tuunxiwxu-Toribio herriko nasa yuwe hizkuntzaren sustatzaile eta irakasleek hamarkada bat egingo dute laster euren espiritualitatean eta kulturaren oinarrituta jatorrizko hizkuntza biziberritzeko ahaleginetan. Zeregin nekeza da talde txiki batentzat eta are eta gehiago bizi duten egoeran. Gizarte mailan talde armatuen eta narkoen bortizkeria etengabea, edo marihuanaren eta kokaren baratzeek, ekoizpenak eta salerosketak sortzen dituzten era askotako arazoak. Horri, Covid 19ak eragindako arazoak gaineratu behar izan zaizkie azken bi urteetan.

Hala ere, talde txikia izanagatik eta testuinguruak haien alde inolako apusturik egitera animatzen ez badu ere egindako lana ari da pixkana fruituak ematen. Komunitatean gero eta sentsibilitate eta motibazio altuagoa dago eta gero eta dinamika ezberdin gehiago sortzen ari dira nasa yuwe hizkuntzaren alde.

2021 urtean, Toribioko zonalderako hizkuntza plan bat garatu da eta Garabideren egitekoa plan horri laguntza ematea izan da. Helduen irakaskuntzan A1 maila erakusten duten irakasleekin aholkularitza eta A2 mailaren sorrera, itzulpengintza eta interpretaziorako sortu den taldeari formazioa, komunikazio eta ekoizpen kulturalerako taldeari aholkularitza eta helduen alfabetizaziorako programa bat sortu da Garabideko kideen laguntzari esker. Horrez gain, 2021 urteak nasen lurraldean hezkuntza arautuaren alorrak eman du uztar nabarmen. Erakunde nasek hala erabakita dozena bat nasa irakasle liberatu dituzte aholkulari euskaldunarekin batera lehen hezkuntzako mailarako curriculumak moldatu eta klase orduen %60 pasatxo nasa yuwez egin ditzaten. Jolasak, ipuinak eta beste hamaika material sortu dituzte hori posible izan dadin. Datorren ikasturtean, lehen hezkuntzako nasa umeak eskolan ere nasa yuwez arituko dira.

# KICHWAK ELKARLANEAN

ECUADOR



2021 urtea oroitzapenean iltzatuta geratzen den horietakoa izango da Garabide eta Ekuadorreko kichwen arteko harremanean. Garapenerako Euskal Lankidetzaren Agentziaren babesarekin bi urtekoa den proiektu integralari hasiera eman diogu aurten. Ekuadorreko Imbabura probintzian gauzatu da proiektua eta Garabide eta Ekuadorreko Sisariy, AJKI eta UTN unibertsitatearen elkarlanarekin ari da izaten posible. Hainbat lan ildo ditu proiektu honek: aktibisten formazioa, kichwa hizkuntzaren aldeko proiektuak aurrera ateratzea, hizkuntza gutxituen inguruko kongresua eta Ekuadorreko kichwen eta Kolonbiako nasa herriaren arteko topaketa. Horiek denak urte bakarrean kabitzea ezinezko izanik, 2021 urtean formazioan eta proiektugintzan zentratu gara.

Proiektu integral honen lehen fasea aktibista ezberdinen formazioa izan da, ekainean hasi eta urrira arte luzatu dena. Asteburuetan ospatutako 150 ordu akademikoko izan dira eta lan esparru ezberdinetako 40 kidek hartu dute parte. Eskolako irakasleak, helduen alfabetatze eta irakaskuntzak lanean ibiltzen direnak,

lider indigena edo administrazio publikoan lanean dabiltzanak, artistak, komunikatzaileak, unibertsitate inguruko kideak... Eskolak dinamizatzen berriz, Ekuadorreko hainbat erakunde eta elkarte aritu dira baina baita kaqchiquel, maputxe edo nasa herrietako kideak ere. Euskaldunak ere aritu gara langintza horretan eta Garabidetarrok bidelagun izan ditugu Soziolinguistika Klusterra, AEK, Aiaraldea Ekintzen Faktoria eta Elhuyar besteak beste.

Formazioan parte hartutako aktibistek kichwaren aldeko proiektuak sortu dituzte eta 2021 urte bukaera proiektu hauek lantzen pasa dute. 6 proiektu izan dira: Kichwa helduei irakasteko metodologia baten sorrera, umeentzako kichwazko udalekuen antolaketa, haurdun dauden emakume eta emaginekin emakume kichwen arteko topalekua, komunikatzaileentzako kichwa formazio eta sentsibilizazioa, hezkuntzan murgiltze sistemara bideratzen joateko saiakera eta Imbabura probintziarako hizkuntza lege edo ordenantza baten jaiotza. 6 proiektu, 6, helburu, 6 amets 2022 urteari esperantzarekin begiratzeko.

# ANIZTASUNAREN ARRAGO

BOLIVIA



**BOLIVIAKO** estatu plurinazionalak 36 jatorrizko hizkuntzei aitortzen die ofizialtasuna. Horietako hiru hizkuntza-komunitaterekin, alegia, hiztun gehien duten aimararekin, guaraniarekin eta kitxuarekin ari da lankidetzan Garabide.

Chacoko guaraniekin Boliviako lehen autonomia indigena den Charagua Iyambaeko lurralde zabalean jardun dugu, bertarako Guaraniaren Plana lantzen. CIPCA erakundearekin batera osatutako talde eragileak guaraniaren diagnosi soziolinguistiko kualitatiboa jaso du. Eta horretan oinarrituta, baita Planaren lehen diseinua burutu ere, batetik, hamarkadatarako ikuspegi estrategikoa jorratuta eta, bestetik, etorkizun-marko horren barruko lau urterako plan operatiboa adostuta Charaguako agente sozial nagusiekin.

Ketxuak, aldiz, hiru departamendu bilduko lituzkeen Plan Estrategikoa prestatzen ari dira. Lan honen barruan egin dira azaro

hasieran, garabidetarren parte-hartzearekin, sentsibilizazio eta sozializazio saioak Chuquisacan, Potosin eta Cochabamban, Ketxua Hizkuntzaren eta Kulturaren Institutuak eta Nazio Ketxuaren Hezkuntza Kontseiluak elkar hartuta, datorren urtean idatziko den biziberritze plan nagusiaren oinarriak jartzeko. Interes handia piztu dute topaketok.

La Pazen eta El Alton facebooka aimaraz lokalizatzen diharduten aktibista digitalak ezagutu ditugu, baita hizkuntzak biziberritzeari buruzko espezializazioa abiarazi nahi duten unibertsitariak. Eta baita aimara batuaren arteko eztabaida korapilatsua ere. Ororen gainetik, baina, aimaraz bizitzeko gogo bizia.

Pieza ugariko puzzlea Boliviako jatorrizko hizkuntzen biziberritze-prozesuena.

# MAPUZUGUNAREN BIZIBERRITZE PROZESUA

MAPUTXE



## BI EKIMEN MAPUZUGUNAREN BIZIBERRITZE PROZESUA HAUSPOTZEKO.

Wallmapu da maputxeen herria, baina han baino maputxe gehiago bizi omen da diasporan, Santiago inguruan. Datu esanguratsua da hori, atzetik hainbat arrazoi izango dituen, baina ez da oztopo izan jatorrizko herrian bizi direnek biziberritze ekimen esanguratsua sor ditzaten.

Mapari begiratuta, Araucania erregioa Santiago baino 6 departamentu beherago dago. Bertan dago Temuco hiria, eta han dihardute Mapuzuguletuañ elkarteko lagunek. Euskal Herrira eginiko bisitetan euskaltegi eta barnetegiak ezagututa, argi ikusi zuten hori behar zutela mapuzugunaren gutxitze prozesua irauli nahi bazen, eta hemengo esperientzia eredu harturik helduen irakaskuntzan fokatu zuten haien indarra.

Urteak dira horretan dabiltzala, eta azkenekoak Aurten Bai fundazioak kudeatutako Zornotzako

Barnetegiko irakasleekin egin dituzte. Unitate didaktikoak osatzeko formazioa eskaini diete Zornotzarrek maputxeei, eta horri esker A1, A2 eta B1 mailak estandarizatzea lortu dute.


Berriro mapari begiratuz gero, Araucaniaren azpialdean dago Los Rios erregioa. Panguipulli udalerria iparraldean dago, izen bera duen lakuaren ertzean. Bertako eskoletako hezitzaile tradizionalak bide berri bati ekin diote 2021ean; erakunde bat sortu dute eskoletan ematen duten ikasgaia folklorismo hutsetik zerbait gehiago izatera irits dadin. Haien helburua saio hori hezkuntza formalean sendotu eta bai hizkuntzaren bidez eta baita maputxeen historia tradizionalaren bidez ikasleengan ahalik eta eragin handiena lortzea da.

Bi ekimen hauen arrakasta izango da mapuzugunaren biziberritze prozesuaren aurrerapausoen giltzarri.



# ZUBI ETA SARE AMAZIGEKIN

AMAZIGH



Urte estua joan zaigu 2021a. Mugak itxita, mugikortasuna eta ekitaldi jendetsuak egiteko aukerak eragotzita eta, oro har, ekitaldi presentzialak antolatzeke giro eta baldintza gaitzetan.

Hala ere, lanean jarraitu du euskaldun, kabiliar eta riftarrek osatutako lantaldeak. Eta emaitza azpimarragarri bat badugu aipagai.

Herri Indigenen Hizkuntzen Biziberritze Estrategiak Indartzeko lehen Lankidetzak Sarea, HIBIL 01, abian da eta dagokion online formazioa aurreratuta dago. 2022ko udaberrian hilabeteko egonaldia egingo dute Euskal Herrian parte-hartzaileek. Eta hor dugu datu

pozgarria: emakume riftarrak eta bi gizonezkoak, melillarra eta kabiliarra, hurrenez hurren ditugu prestakuntza intentsiboko eta esperientzia trukeko ekimen honen partaide.

Hiru estatutako amazigek ekarpen esanguratsua egiten ari zaizkio gure biziberritze ezagutzari; hizkuntza komunitate baten egituraketari nola heldu sakabanaketa administratibotik, nola planteatu ekoizpen kulturala halako egoeratan... Errealitate anitz, ikuspuntuan hitz.

Hiru amazig, beraz, gure eragile sarea ehunduz jarraitu eta zabaltzeko, hiru zubi berri, Melillara, Rifera eta Kabiliara.



### 3. lerro estrategikoa: AKTIBAZIO SOZIALA EUSKAL HERRIAN

# Zabaltzen

26

26

### 3. lerro estrategikoa: FORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA

# “HIZKUNTZA INDIGENAK AMA LURRA ZAINTZEN”

## ERAKUSKETA



Erakusketa honek euskal herritarrei bi kontu jakinaraztea du helburutzat. Batetik, **kooperazio linguistikoa nola ulertzen dugun** adieraztea, zein balio, zein garrantzi eta zein aukera dituen. Bestetik, **isilarazitako herri indigenetara hurbiltzea**, haien sentipenak eta sentiberatasunak ezagutu ditzagun.

Erakusketara hurbiltzen den bisitariak hainbat kontakizun aurkituko du bertan, bakoitza hizkuntza batean eta bakoitza mundu batera hurbiltzen gaituen irudi batez lagunduta, **indigenen hitzak eta indigenen begiradak islatzen dituzten paneletan bilduta.**

Munduan dauden hizkuntza gutxituen lagin bat besterik ez dute osatzen testuok. Hain zuzen, 2018 urtean Aretxabaletan Garabide Elkarateak eta HUHEZIK antolaturiko Aditu Ikastaroan parte hartu zutenak. Galzorian dauden hizkuntzak

dira gehienak; bizirik irauteko zailtasun ugari dutenak eta, sarritan, gatazkaz inguratutako gizartean daudenak, baina irauteko gogo biziz daudenak.

Erakusketa **EASO politeknikoa, Unesco-catedra eta Garabideren** artean antolatu dugu.

Prestaketa lan guztien ondoren,

2001. urtean ekin diogu erakusketa herriz herri zabaltzeari. Urte honetan herri hauetan izan da: **Aretxabaleta, Barañain, Durango, Elorrio, Oiartzun, Donostia (Easo politeknikoa) eta Orio.**

Erakusketak arrakasta izan du eta 2022an jarraipena emango diogu ekimenari.

27



# Euskal lankidetzan hizkuntza gutxituekin lanean



Garabide elkarteak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean proiektu berritzaile bat abiatu dugu. Proiektuaren helburua lankidetzan aritzen diren elkarte eta erakundearen diagnostiko bat egitea izan da arlo linguistiko eta kulturalari erreparatuz, atzerriko esku hartzeen komunitateetako bizipenak oinarri hartuta. Proiektu hau, UNESCOk 2022tik 2032ra bitarteko urteak Hizkuntza Indigenen Hamarkada izendatu izanaren testuinguruan ari da aurrera egiten.

40 GGKE-k hartu zuten parte eta oso diagnostiko oparoa izan zen, lankidetzaren unibertsoaren argazki zabal bat ematen lagundu ziguna. Egindako lan honek hainbat ondorio ekarri ditu mahai gainera. Lankidetzako erakunde eta


elkarteen artetik ateratako ondorio nagusia gai hau lantzen jarraitzeko beharra, asmoa eta ilusioa badagoela izan da.

Horregatik, proiektu honek segida izango du eta diagnostikoan identifikatutako bi lan ildorekin hastea erabaki da. Hauek dira egitasmoak dituen bi lan ildo edo xedeak:

Lankidetzaren proiektuetan jatorrizko herrietan lan egiten duten proiektuetako kideekin diagnostikoa egitea, tokian tokiko hizkuntzen erabilera proiektuetan zein den ezagutzeko eta aurretik identifikatu ziren zailtasunetan sakontzeko.

Garapenerako Lankidetzan lan egiten duten erakundeetako pertsonak ahalduntzea hizkuntzen biziberritze eta kultur aniztasunaren gaian.

# Hizkuntza aniztasuna lantzen Errenteriako ikastetxeetan



2021 honetan, gure gertuko testuinguruetan geroz eta begi-bistakoagoa den eta mundu mailan gertatzen ari den fenomeno kontrajarri bati heldu nahi izan diogu: testuinguru globalean hizkuntzak galtzen eta homogeneizatzen ari dira, baina testuinguru lokalak geroz eta anitzagoak dira.

Orain arte, gure sentsibilizazio lana euskararen eta Hegoko hizkuntza gutxitu batzuen berreskurapen esperientziak ezagutaraztearen inguruan ardatz da. Barne hausnarketa baten ostean, testuinguru (ele)anizteta hizkuntza gutxituek behar luketen trataerari eta elkarren hizkuntza eta kulturaren bisibilizazio eta balorazioak elkarbizitzan izan dezakeen eragin positiboaren inguruko gogoetari heldu diogu.


Errenteriako udalarekin elkarlanean, Errenteriako 5 eskolako DBH 3.mailako ikasgela guztietan izan gara gai horren inguruko sentsibilizazio

saioak egiten. Saioek hizkuntza eta kulturen aniztasunaren garrantzia eta eskolako eta herriko aniztasuna ezagutzeko izan dute oinarri. Horren erakusle goiko irudien ageri diren "hizkuntza konstelazioak", ikasleek marraztu zituztenak euskarak Errenterian

beraien ustez duen lekuaz hausnartzeko egindako ariketa batean. Saio horiek kurtso osoan zehar garatuko den sentsibilizazio programa baten lehen pausoa izan dira, ondoren etorriko baitira Garabidek sortutako dokumentalen lanketa, ordezkari indigenen hitzaldiak HIBIL proiektuaren baitan martxoan Euskal Herrian egongo duten egonaldia baliatuz eta Errenteriako DBH 3.mailako hizkuntza maparen sorrera. Gai honen inguruko lehen sentsibilizazio proiektua da Errenteriakoa, eta estrategiko kontsideratzen dugu lan-lerroaren ibilbideko lehen pausoa izango dela aurreikusten dugu.

# 2021ko balantzea

## EGITURA



**BABESLEAK**  
Euskal Herriko 33 entitate.



**LAGUNTZAILEAK**  
Euskal Herriko 38 entitate sozial.



**BOLUNTARIOAK**  
37 Boluntario.



**BAZKIDEAK**  
87 Bazkide.

## BALANTZE EKONOMIKOA

### SARRERAK

|                                                          |                     |
|----------------------------------------------------------|---------------------|
| Diru-laguntza lehiakorak                                 | 261.315,24 €        |
| Hitzarmenak, bazkideak, produktu eta zerbitzuen salmenta | 144.031,71 €        |
| <b>GUZTIRA</b>                                           | <b>405.346,95 €</b> |

### GASTUAK

|                                                                                           |                     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|
| Bidaide programa: hizkuntza komunitateekiko lankidetzaren proiektuak + on-line formazioak | 87.041,19 €         |
| Hegoko diplomaturak                                                                       | 210.972,30 €        |
| Genero plana                                                                              | 11.246,95 €         |
| Administrazioa                                                                            | 44.970,97 €         |
| Koordinazioa                                                                              | 29.980,64 €         |
| Zabalkundea                                                                               | 24.983,87 €         |
| <b>GUZTIRA</b>                                                                            | <b>409.195,92 €</b> |



## BABESLE, BAZKIDE, LAGUNTZAILE ETA BOLUNTARIOAK

Garabideren lana erakundeek, zein norbanakoek babesten dute. Ekarpn ekonomikoa egiten duten erakundeei babesle deitzen diegu eta norbanakoei bazkide. Aldiz, diruz bestelako ekarpena egiten duten erakundeak laguntzaileak dira eta norbanakoak boluntario.

Garabidek 2021eko bukaeran **33 erakunde babesle** zituen. Horrez gain zinez eskertu behar dugu **87 bazkideek** erakutsitako babesa.

Ekarpn ekonomikoa egitetik haratago, **37 boluntarioen eta 38 entitate laguntzaileren lana** aitortu eta zintzoki eskertu behar dugu, hizkuntza lankidetzaren proiektuetan euren denbora eta esperientziak partekatzeagatik.

Dimentsio eta ezaugarri anitzeko ekarpn guzti horien baturari esker izan da posible memoria honetan jaso ditugun hizkuntza lankidetzaren ekimenak aurrera eramatea. Beraz, eskerrik asko guzti-guztioi.

### • BABESLEAK •



• LAGUNTZAILEAK •





garabide  
elkartea  
2021

**943 25 03 97**

**688 63 24 33**

garabide@garabide.eus

www.garabide.eus

f/Garabide.eus

@garabide

v/Garabide

/Garabide Elkartea

@garabideelkartea